

GERORA GERTATUTAKO IRREGULARTASUN-EGOERA

Honela eragiten digu pertsona gisa.



ABIAPUNTUA

- > **2017:** Aita Santuak eta Caritas Internationalisek kanpaina bat abian jarri zuten behartutako giza mugikortasunari buruz, «Bidaia elkarrekin» zeritzona. Bere helburua: topaketaren kultura sustatzea.
- > **2018:** Bidaia partekatu genuen, emigratu behar duten pertsonen sorterrietan zer gertatzen den ikertzeko eta, horrela, galdera hauei erantzuteko: Zergatik daude hainbeste pertsona emigratzera behartuta? Zer gertatzen da ibilbidean? Eta helmugan? [Bidaia elkarrekin](#).
- > **2019:** Non egiten dugu bat? Bizikidetzan, gure hiri eta auzoetan, aniztasunean eta gizarte inklusibo eta pluralago bat eraikitzeko lanean. [Topatu, elkar aurkitzeko](#).
- > **2020:** Galdera hau egin genion geure buruari: zer errealitatek eragozten, zailtzen, baldintzatzen eta galarazten dituzte topaketak?

Material honekin, errealitate ikusezin batera hurbiltzen gara; alegia, **gerora gertatutako irregulartasun-egoerara**. Giza mugikortasuneko egoeran dauden pertsona asko administrazio-egoera horretan geratzen dira, hainbat arrazoi tarteko, Atzeritar Legeko baldintzak betetzeari uzten diotenean.

«Langileak espero genituen, pertsonak etorri ziren, eta auzokideak nahi ditugu» materialarekin, gerora gertatutako zenbait irregulartasun-egoera ikusiko ditugu, Espainian ikusezina diren migratzaile asko baitaude egoera horretan. Batzuetan, gerta daiteke legeak bidezkoak ez izatea. Hori gertatzen da Atzeritar Legearekin.

ZER DAGO MATERIAL HONETAN?

- > **5 BIDEO:** giza mugikortasun egoeran dauden bost pertsonaren bizitzaren berri ematen dute; haien errealitateak oso desberdinak dira, baina emaitza, berriz, berbera.
- > **5 FITXA** (bideo bakoitzeko bat): istorio bakoitza lantzen lagunduko dute. Sakon azertu ahal izango dugu legeak nola eragiten dion protagonista bakoitzari eta zer egin dezakeen gutako bakoitzak.
- > **ROLL-UP AZALPENA ETA 5 KARTEL:** materiala aurkezten duen azalpen erraza, gerora gertatutako irregulartasun-egoeran sakontzeko gonbita.
- > «**Eta buelta ematen badiogu?» KOADERNOA:** taldean lantzeko, dinamika gisa.
- > **5 PIEZA SARE SOZIALETARAKO:** Facebook eta Instagramerako.



Material guztia doakoa da, eta eskura dago PDFn eta bereizmen handian, deskargatzeko eta inprimategian edo etxeko inprimagailuan inprimatzeko. Liburuxka eta orriak etxeko inprimagailuan inprimatuz gero, orrialdeek beti izango dute marko zuria. Marjina zuririk ez izateko, dokumentuak inprimategian inprimatu behar dira, eta beti koskatze- eta ebaki-markekin. Ez dago materiala paperean eskatzeko aukerarik.

NOLA ERABILI MATERIALA?

Egia esan, ez dago araurik. Jarduerak egiteko, askatasuna eta sormena dira nagusi. Dena den, hona hemen proposamen baliagarri batzuk:


1. Demagun egun bakarreko edo gehiagoko saio bat prestatu nahi duzula gerora gertatutako irregulartasun-egoerari buruz. Horretarako, **jarri bost kartelak eta roll-up-a aise ikusteko leku batean. Helburua, arreta erakartzea da: «Zatoz eta ikusiko duzue!». Karteletan planteatzen diren galderak erantzuten edo Elizaren Irakasbide Sozialaren aipuetako bati buruz hausnartzen hasi.**

2. Bost bideo ditugu, gerora gertatutako irregulartasun-egoeren berri ematen dutenak. Fitxek informazio gehiago emango digute errealitate bakoitzari buruz. Jarduera hau banaka edo taldean egin daiteke.

3. Koaderno "Eta buelta ematen badiogu?". Orain, kontua da "argi luzeak piztea", aurrera begiratzen saiatzea eta etorkizunari buruz galdetzea: errealitate hori aldaezina al da?

Jarduera hau taldean egitea proposatzen dizugu, denon artean pentsatuz. Elkarrizketan, elkar entzutean eta trukean, maiz aurkitzen ditugu ideia-indar sortzaileenak.

Orrialdeko PDF fitxategia A4, tamainan inprima dezakezu, bi aldetatik, «liburuxka» formatua hautatuz. Talde ertaina edo handia bada, komeni da kopia bat izatea lau edo bost pertsonako.



LEHENIK ETA BEHIN:

Koaderno nola sortu: mahai batean edo lurrean, lau edo bost pertsona orrialde horien inguruan eseri, eta, orrialde-zenbakiak eta istorioaren koherentzia kontuan hartuta, koaderno osatuko dute. Emaizta: liburuxka itxi bat, plegu-laurden baten tamainakoa, eta 12 orrialde zenbakitu dituena.

BIGARRENIK:

Koaderno egin ondoren, osatutako **istorioa berrikusiko dugu,** eta **orrialdeak gainbegiratuko ditugu** testuan ageri diren argibideei jarraituz. Orduan:

- > Inpresioak komentatu, eta zalantzak argituko ditugu.
- > Bi balizko istorio irakurri ditugu: bata, benetakoa, eta bestea aldaketa «txiki/handi» batzuk gertatuz gero gauzatu litekeena. Zer iruditzen zaizu? Non dago istorioari «buelta emateko» gakoa?
- > Bettyri gertatzen zaiona ikusi dituzun bideoetako beste istorioekin lotu. Zer antzekotasun daude?
- > Zer gehiago egin dezakegu Caritas gisa?